

BALEIKE

258. ZENBAKIA. EURO BAT
2016ko URRIA

www.baleike.eus

NOLAKO
TAO?

INKESTA: TURISMOA ZUMAIAN II



*Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,
lore-zentroak, koroak,
landare naturalak eta artifizialak,
zeramika-lanak eta zumezko saskiak.*

Etxez etxeko zerbitzua!
Santiago auzoa, 18
Tel. 943 862 611



Euskal Kostaldeko Geoparkeko I. mailako kanpina
Etor zaitez gure kanpinera famili artean eta giro
lasaian zure oporraz goatzera, umeekin ekintza
ugari egin ahal izango dituzu.

Ez izan zalantzarik eta HURBIL ZAITEZ!

- Partzelak
- Bungalowak alokairuan
- Taberna eta jatetxea
- Supermerkatu txikia
- Haur jolasak
- Bi igerileku

Basusta bidea, 16
Tel. 943 860 475

orrúa
taberna • jatetxea
bar • restaurante

- Merendolak, Txokolatadak
- Menu zehaztuak (Talde Handiak)
- Sagardotegia (Ostiraletan 26€)
- Plater Konbinatuak
- Oilasko Erreak, baita eramateko ere
- Ostiraletan Pintxo-Pote
- Kintadak, santelmoak, koadrilak, etab
- Ogitartekoak
- Karta

Basusta bidea, 16
Tel. 943 143 582

Gorka Zabaleta



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odriozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Iosu Alberdi, Jabi

Gonzalez Toston, Izaskun Urbieta eta Gorka

Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

21

baleike+

TAO ZUMAIAN

4

iritzia
ZIIZ

5

iritzia
MIGEL APERRIBAI

7

herritik kanpo
NADET EGAÑA

10

inkesta
TURISMOA ZUMAIAN II

15

puntueus
URTEKO KIROLARI
ONENAK

16

kultura
HERENSUGEAK
ITZURUNEN

28

irudia
ESNE-BIDEA

30

agenda
URRIA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udal



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



kutxa



kutxabank

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

ZIIZEN EGITASMOAK UDALAK ERANTZUN ZAIN

ZIIZ proiektuaren lantaldean bi ekimen ditugu eskuartean orain. Bata, ZIIZ-en hasierako helburuen artean jaso genuena: bilaketa eta azterketa-lanen ondorioz bildutako industria-ondareko elementuekin erakusketa iraunkor bat prestatzea. Eta bestea, interes nabarmeneko ondarea babesteko neurriak proposatu eta bultzatzea. Bi gaietaz hitz egiteko elkartu gara behin baino gehiagotan Udalarekin, baina hilabeteak pasa ondoren ez dugu erantzunik jasotzen.

Hauek dira abiatu nahi ditugun egitasmoak:

- Zumaiaiko industrializazioaren erakusketa iraunkor bat sortu, Horretarako. Beheko Estazioa edo Anbulategi zaharra da, gure ustez, leku aproposena. Udalak eraikin hori erosteko aukera sortu zenean 2010ean, proposatu genuen Turismo Bulegoarekin erabilera partekatzea. Beheko solairuan Turismo Bulegoa kokatu eta goian Zumaiaiko Industria ondarearen erakusketa. Baina tamalez ez zen gauzatu erosketa. Orain, Udalak eraikin hori hartzekotan dabilenean, berriro, proposamen bera mantentzen dugu, 2015ean antolatutako erakusketan hartutako eskarmentuaz baliatuz.
- “La Zumayana” zementu fabrikaren arrastoak babestu horretarako behar den prozesua abiaratuz. Narrondo auzoan kokatua, Zumaiaiko industrializazioaren motorra izan zen zementugintza arloko elementu adierazgarria da. 2015eko apirilean Udalean egindako bilera batean adostuta, Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte (IOHLEE)-rekin lankidetzan prestatutako txostenean arrasto horien balorazioa egin zen aurretiko urrats bezala. Txosten horretan, aipatutako arrastoak duten apartako ondare-balioa nabarmentzen da, bai udal nahiz Euskadiko Autonomia Erkidego mailan.

Biei buruzko dokumentu bana aurkeztuak ditugu udaletxean, Udalaren posizioa jakin nahian. Baina, 2015eko irailaz geroztik alkatearekin hiru bilera egin ondoren, (azkena aurtengo martxoan) ez dugu erantzun zehatzik jaso.

Hasieratik adierazi diogu Alkateari gure prestutasuna lankidetzarako eta behar diren azalpen guztiak emateko. Erantzun ezaren aurrean, Udalari gai hau elkarrekin lantzeko borondatea eta nahia adierazi nahi dizkiogu berriz ere, oraingoan publikoki.

“Bi gaietaz hitz egiteko elkartu gara Udalarekin, baina hilabeteak pasa ondoren ez dugu erantzunik jasotzen”

Esan, baita ere, Udalean ordezkaritza duten alderdiak jakinaren gainean daudela gai honi buruz.

Europako Kontseiluak bultzatuta eta Gipuzkoa Foru Aldundiak antolatuta, Gipuzkoako 21 udalerrien partehartzearekin, 2016ko iraila eta urrian garatzen ari den “Ondarearen Europako jardunaldiak” izeneko ekimenaren helburuetako batek honela dio “Gizarte zibila nahiz ekonomia, gizarte, politika eta administrazio alorretako eragile guztiak sensibilizatzea, mehatxu berrie aurre eginez ondarea babestu ahal izateko”.

Zumaia ez du parte hartzen ekimen hartan, baina ea kontuan hartzen dugun aipatutako helburua eta, kasu honetan, herrian dugun Industria-ondare apurra babestu eta gordetzeko neurriak hartzen diren.

Zumaiaiko Industria-ondarearen Informazio Zentroa – ZIIZ

XX. mendearen azken hamarkadan, gehien bat, Zumaiaiko industria-jardueran garrantzi nabarmena izan zuten hainbat lantegi itxi eta suntsituak izan ziren, haien industria eta kultura-ondare balioa kontuan izan gabe, herriko industrializazio prozesuan elementu eta ikur adierazgarriak desagertaraziz.

2009an zumaiair talde bat kezkatuak pasatzen ari zenarekin eta ikusirik beste

lurralde askotan industria-ondareari ematen dien garrantzia, zerbait egitea erabaki zuen Zumaiaiko iragan industrialaren oroimena galdu ez zedin eta ahal zen neurrian, gelditzen zen ondare fisiko apurra babestu eta gordetzeko. Horretarako, Zumaiaiko Industria-ondarearen Informazio Zentroa – ZIIZ izenarekin sortu zuten lan-talde bat.

Informazio eta datu bilaketa lanak eginda gero, ondorengo ekintzak burutu ditugu:

- Zumaiaiko industrializazioaren nondik norakoak jasotzen dituen <http://www.ziiz.eus/> webgunea. 2014. urtean.
- “Industria ZIIZ-tadak” goiburuekin 10 panel herriaren zehar, izandako industriagune nagusietan, 2015ean.
- Aldi baterako erakusketa, Oxford aretoan, 2016an.
- Gaiari buruzko bederatzi hitzaldi, 2009 eta 2016 bitartean.

Xabier Alvarez, Oihana Artetxe, Javier Carballo, Rafael del Pilar, Pedro Etxabe, Ismael Manterola, ZIIZ-eko kideak



Zuei ere gertatuko zitzaizuen. Kantu bat entzun eta hortxe geratu, bueltaka, burutik kendu ezinik. Neri udara honetan gertatu zait azkenengo aldiz. Pako Ibañezen aspaldiko kanta bat entzun nien ume batzuei. Lau eta zazpi urte bitarteko hiru anai-arreba izan ziren pozik eta jolas giroan aritu zirenak kantatzen “behin batean bazela printze gaizto bat, sorgin eder bat eta pirata ondradu bat”.

Baten batzuek ezagutuko duzue kanta. Amestu duen atzekoz aurrerako mundo batez ari kantaria. Ez dakit norrenak diren hitzak, baina kantua Pako Ibañezek eman zuen ezagutzera, bere tristura puntuarekin eta bera ahos lehor eta sakonarekin.

Aurtengo udaran ordea, beste aire bat hartu zuen kantak txikien ahotan. Antzerki antzeko bat egin ziguten umeek helduoi, printzeak, sorginak eta piratak aipatzen dituen kantua guretzat abestuz. Eta bai prepezioz abestu ere. Helduok letrak esaten dituen aldrebeskeriez jabetu gintzezen, bereziki mantso eta indartsu ahozkatuz aritu ziren kantuan: “...un mundo aldrrebes”, “...un mundo aldrrebes”.

Ez zuten uste guk kanta ezagutuko genuenik, eta ez ziren gure ulertzeko gaitasunaz fio. Horregatik ahoskatze ahalegin berezi hura. Umeek laster antzematen dute lekuz kanpo dagoena, ohikoa ez dena; baina helduokin berdin gertatzen denik ez zuten, nonbait, hain garbi.

“Ez dakit ez ote garen iritsi errealitate gordina eta errealitate birtuala nahastera”

Kontua da ordutik hona bueltaka dabilkidala kantu hori, eta kantuarekin batera baita atzekoz aurrerako munduaren kontua ere. Nahi baino gehiagotan gertatzen zait ez jakitea ikusten ari naizena zuzen edo atzekoz aurrera dagoen. Urrun joan gabe, Zumaian grabatzekoak diren telesail ospetsurako lan-poltsako deialdia zela eta bizi izan dut sentazio hori. Ba-

leikek egindako elkarrizketan, hau zioten lanerako aurkeztutako batzuk: Berdin zitzaieela zenbat ordaintzen zuten edo zeintzuk ziren lan baldintzak. Prest zeudela dietak eta antzekoak ez kobratzeko. Are gehiago, gustokoa dutela telesaila eta lanerako hartzen badituzte gustora jardungo dutela ezer kobratu gabe ere.

Lan eske doana lana egiteagatik ezer ez kobratzeko prest dagoela entzutea, printze gaiztoak edo sorgin ederrak badirela entzutea baino askoz ere aldrebesagoa egin zait niri. Baina helduen artean halako lilura sortu duen fantasiazko telesaila tartean dela, nork jakin?. Ez dakit ez ote garen iritsi errealitate gordina eta errealitate birtuala nahastera, langabeziaren larria ahaztu eta lana jolasa dela sinetsiz. Esangonuke gaur gaurkoz izua eta ikara langabeziak eta prekaritateak sortzen dutela, ez herensugeek. Edo bai?. Nork jakin?. Agian umeek?. Galdetuko diet.

Miguel Aperribai



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES Izoiztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumaiak (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20
www.a3zumaia.com
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak

fb



AL-ANON

Alkoholikoaren senide eta lagunen elkarteak

Tel. 650 265 963

Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943 861 280



LIBRURIA AIZPURUA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569

ALBERDI

dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

696 726188
943 143261



Amama taberna

tel.: 943 543 164
amamataverna@gmail.com

Ortega y Gasset kalea 4. Zumaiak (Gipuzkoa)



ATARI TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

Ardantzabide

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Denda: Txomin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532

Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

f

ARGISUN

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girotxea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA Artxupe

Nagusia 2 • Tel. 943 861 501

ZUMAIK

OGI-EDER



ARRUTI

Baltasar Etxabe 2/0
Zumaiak 943016428



Bosch Service

Bosch Car Service

Autos Zumaiak

Gasolina injezioa
Diesel injezioa
Elektrizitatea/Elektronika
Piztea

Balaztak, ABS, ESP
Mantentze mekanika
Motorraren mekanika
Hozte sistemak

Urola plaza 3-5
autosumaiak@bosch-bcs.com

Tel. 943 861 485

Azkue

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, beheak tel. 615 793 406 / 943 862 651
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



Bakun

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

Sari Isidro, 25
20740 Arroa

tel./faxa: 943 148 306
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza

Ribaitorio Itaki Garmendia

Basadi, 7, beheak - tel. 943 143 310
www.basadialbaitaritza.com
www.basadialbaitaritza.com

Gorbea: 11-13 / Arrabaldoz: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan itots
Lantekidetasunak: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzuak



BASUSTA

erretegia • asador

José Blázquez

Pafila Etxezarreta, 25
20750 Zumaiak (Gipuzkoa)

Tel.: 943 86 20 73
943 86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com



Braky's

Okindegia • Kafeetegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumaiak (Gipuzkoa)

Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Ekaina amaieran iritsi zen Nadet Egaña (Zumaia, 1988) Costa Ricara motxila soinean hartuta, eta urte erdi iraungo duen bidaiari ekin zion bertan lur hartu orduko. Egunerokoaren erosotasunetik atera nahiak eramane du Egaña muga berriak esploratzera. Baleikek Costa Rican zela elkarriketatu zuen; Nikaraguan dago orain.

“Aberasgarria
ere bada
berezko lanbidez
aldatzea,
egunero zerbait
berria ikasteko”

TESTUA: MAIALEN ODRIÓZOLA

Turista bai, baina ez guztiz kanpotarra; izan ere, tokian tokikoekin integratzea du lehentasun nagusi. Elkarriketan, Costa Ricaz, bidaiatzeko moduez, iparraren eta hegoaren arteko ezberdintasunez... hitz egin digu.

Tximeleta haztegi batean ari zara lanean. Zenbat tximeleta mota aurki ditzakegu zuenean? Guztira, 15-20 mota ezberdin daude, baina denak batera ikustea zaila da. Gehien ikusten direnak blue morpho motako tximeletak dira, Costa Ricako ikurrak, hain zuzen ere. Buho izeneko beste batzuk ere badaude, hegaletan begiak dauzkatala ematen dutenak; baita malaquita izeneko berde kolorekoak ere. Egia esan, ni astean behin egoten naiz haztegiko lorategian, eta iruditzen zait astero tximeleta mota berri bat agertzen dela [barrez].

Ostatu bat ere bada, aldi berean, haztegia. Zein dira zure egitekoak bertan? Astean 4 egun egiten ditut lan eta 3 jai. Lanegun batean, lehen esan bezala, lorategian ematen ditut bost ordu (tximeletei jaten ematen, arrautzak biltzen, turistei bisita gidatuak egiten, hostoak jasotzen...). Gainerako hiru egunetan ostatuko harreraren egoten naiz zortzi orduz, beti goizez. Arratsalde guztiak, beraz, libre dauzkat lagunekin egoteko, paseatzeko, hondartzara joateko...

Lan horren truke lortzen duzu, hain zuzen ere, janaria eta ostatua, ezta? Bai, elkartruke bat da: nik 4 egun horiek lan egiten ditut eta, trukean, ez naiz kezkatu behar lotarako lekuaz eta eguneko jatorduez.

“Astean behin egoten naiz lorategian, eta iruditzen zait astero tximeleta mota berri bat agertzen dela”

Uste duzu hau atzerrian egonaldi bat egin nahi dutenentzat formula egokia dela? Bai, alde batetik, diru kontuengatik; izan ere, lotarako lekua eta otorduak ez ordaintzeak asko laguntzen du aurretzen. Egokia da, era berean, bakarrik bazoaz aukera gehiago ematen dizkizulako bertako jendearekin harremanak izateko eta zure moduan joan diren boluntarioak ezagutzeko. Horrez gain, aberasgarria ere bada berezko lanbidez aldatu eta begiak zabalik izatea egunero zerbait berria ikasteko.

Nola lotu zenuen zuk hango informazioa? Hemendik kontratua hitzartuta joan zinen? Interneten “saltseatzen” nobilela azaldu zitzaidan orrialde hau: www.workaway.info. Bertan, lotarako lekua eta otorduak lanaren truke ematen dizkizuten mundu osoko eskaintzak daude. Ildo horretatik,

gustukoa nuen lekua bilatu nuen lehenbizi, bertara idatzi nuen eta tximeleta haztegiaren jabeekin harremanetan jarri nintzen. Ez nuen inolako kontratu berezirik sinatu eta beldur apur bat ere banuen iritsi eta lanik gabe eta bakarrik aurkituko ote nintzen. Teknologia berriez fidatu nintzen azkenean, eta, zorionez, dena ondo atera da.

Ez da zure lehenengo aldia Costa Rican. Nolatan hartu zenuen itzuli eta bertan denboraldi bat egiteko erabakia? Iaz izan nintzen, abuztuaren, 20 egun motxilarekin

bidaiatzen. Lekua eta jendea, biak, gustatu zitzaizkidan eta buruari buelta batzuk eman ondoren, bueltatzea erabaki nuen. Costa Rica ez da inondik inora Erdialdeko Amerikako herrialderik merkeena, baina benetan erakargarria egiten zait. Horrez gain, iaz lagun batzuk egin nituen hemen eta horrek ere ziurtasuna ematen zidan. Eta horrelaxe amaitu dut Costa Ricako Nicoya penintsulako izkina batean: Montezuman.

Zertan bereizten dira, nagusiki, Zumaia eta hango bizitza? Lasaitasunean. Hemen, dena egiten da lasai. Hasieran kosta egin zitzaidan ohitzea, iruditzen zitzaidan beste abiadura eta “erreboluzio” batzuetara bizi nintzela, eta, egia esan, horrela zen. Pixkanaka ari naiz, ordea, ni ere gauzak lasaiago hartzen. Batzuetan ematen du fundamenturik ez daukatela eta “Mugi zaitez!” garrasi egiteko gogoia jartzen zait, baina horrelakoak dira, horrelakoak da “Karibeko erritmoa”. Beraien maxima: “Ez egin gaur bihar egin dezakezun hori”. Gazteen artean ere berdin: lanean ari zarenean lan egin, eta lanik ez dagoenean, egon, surfean aritu, arrantzara joan...

Bakoitzak bere dohainak ongi erabiltzen ditu dirua lortzeko turistei zerbitzuak eskainiz (surfeko klaseak, bisita gidatuak...), baina behin dirua lortuta, ez pentsa gastatu arte gehiago joango direnik lanera. Berriz dirua behar dutenean, orduan bakarrik mugituko dira.

Alde horretatik, nire egunak ere nahiko lasaiak dira. Lana badaukar, arratsaldeak eta iluntzeak aprobetxatzen ditut herrian paseatu eta lagunekin egoteko. Libre ditudan egunetan,



Izen-abizenak: Nadet Egaña

Adina: 28 urte

Ikasketak: Fisioterapia

Afizioak: kirola eta bidaiatzea, noski!

Hizkuntzak: euskara eta gaztelania, eta ingelesa komunikatzeko adina

Akordatzen naiz bereziki...: familiaz, lagunez, Algorriko labarraz eta arroza eta *frijoleak* (babak) ez diren beste jaki guztiez



“Niri bidaiatzeak bizitza ematen dit: ziurtasuna izatea egun bat hurrengoaren ezberdina izango dela”

kuntzak (nola alda daitekeen batetik bestera, nahiz eta leku guztietan gaztelania izan), ohiturek... Eta herrialde horren parte txiki bat izateak. Niri bidaiatzeak bizitza ematen dit: zer datorren ez jakiteak sortzen dizun zirrara, ziurtasuna izatea egun bat hurrengoaren ezberdina izango dela... Azken batean, orain horren modan dagoen kontzeptuarekin azalduta, “erotasunaren eremutik” atera eta ezegonkortasuna sentitzea. Badago jendea turista eta bidaiari kontzeptuak ezberdintzen dituen; hala bada, ni bidaiaria sentitzen naiz. Kalean, eta herriaren ondoan [barrez].

Esperientzia horietan ziur bidaiez eta bidaiariez hausnartzeko aukera ere izan duzula. Zumaian ere hizketagai dira, azkenaldian, turismoa eta horrek dakartzan ondorioak. Nolakoa da, oro har, costaricarren eta turisten arteko harremana? Zure ustez, zer ekarpen egiten dizkio turismoak herrialde bati; eta zein, dira arriskuak? Nik ikusten dudaren arabera eta beste bidaiari batzuekin hitz egin dudaren arabera, harremana turistekin, oro har, ona da. Ez dira beste leku batzuetan bezala “putreen” moduan turistengana gerturatzeko, baina, era berean, laguntza eskatzen badiezu, atsegin handiz erantzuten dute. Ekarpene ekonomikoa ere oso garrantzitsua da, baina ondo administratu behar da. Aurrekoan beste turista batzuekin hitz egiten jardun nuen, hain justu, horretaz. Komentatu genuen Costa Rica oso turistikoa dela –Erdialdeko Amerikako herrialde garrantzitsuenen–, turista dirudun asko erakartzen dituela..., baina, hala ere, errepide asko asfaltatu gabe daude. Non dago turismotik irabazten den diru guztia? Bere ospearen maila eta azpiegituren maila ez datoz bat. Arrisku berdina ikusten dut beste edozein tokitan ere; hau da, turismotik irabazitako dirua ondo ez erabili, bertakoak “pobre” izaten jarraitu eta turista dirudunentzako herrialde bilakatzea.

Zein dira hemendik aurrera zure planak? Beste norabaitera mugituko zara? Euskal Herrira itzuli? Costa Rican jarraituko duzu? Printzipioz, iraila hasiera arte tximeleten haztegia egongo naiz. Baliteke gero egun/aste batzuk lasai hemendik geratzea eta ondoren, auskalo... Urriaren erdialdean, gutxi gorabehera, Nikaraguan egon nahi nuke. Tartean, inprobisatzen joango naiz.

berri, surfean egiten saiatzen naiz, arrantzan ikasten ahalegintzen naiz edo alboko herri eta hondartzak bisitatzen ditut. **Hiru aldiz izan zara Mozambiken eta hiru egonalditan bost hilabete pasa dituzu, Costa Ricara egin dituzun bidaietan lau hilabete inguru. Zenbat denbora behar du bisitari batek tokian tokiko errealitatea ezagutzeko? Zer ematen dizu zuri bidaiatzeak?** Mozambique hiru udaratan bisitatu nuen. Han ere boluntario jardun nuen, baina fisioterapeuta. Nik uste dut denbora baino are garrantzitsuagoa dela lurralde horretan duzun interesa. Astebetean, leku bateko errealitatea gutxi gorabehera ezagutzeko aukera duzu, betiere, jarrera irekia eta jendearekin tratatu ona badaukazu. Kontrakoa ere gerta daiteke, ordea: bi hilabete leku batean egotea, baina zure burbuilatik atera ez, eta ezertaz ez konturatzea.

Azkenean, dena, zure interesaren arabera da. Ni, adibidez, gehiago betetzen naute jendearen tratatuak, kulturak, hiz-

Oharra: elkarrizketa hau *Baleiken* argitaratu orduko, Nadet Egaña Nikaraguan egongo da.

ZUMAIATURISTEN BEGIETAN

EGILEAK: IOSU ALBERDI ETA JABI GONZALEZ TOSTON



Oscar Sanchez, 39 urte, eta **Belen Comas**, 42 urte, Gironatik iritsi dira bi alabekin oporretan.



Chefe Martinez, 50 urte, emaztearekin eta beste hiru bikoterekin flyscha bisitatzera etorri da Arabatik.



Iosu Ancin, 21 urte, eta **Sara Fernandez**, 18 urte, arrasatearrak Zumaia etorri dira *Game of Thrones* telesailko lan poltsa dela eta.

Zerk ekarri zaituzte Zumaia? Nola izan duzue herriaren berri eta zeren bila etorri zarete?

Iosu Ancin eta Sara Fernandez: *Game of Thrones* telesailaren lan poltsa dela eta etorri gara Zumaia. Arrasatearrak garenez, autobusaren eta trenaren bidez iristea lortu dugu. Ea lantxoren bat aurkitzen dugun...

Chefe Martinez: Araban landa etxeak ditugun lau bikote gara eta bakoitzak noiz-behinka ibilalditxo bat antolatzen du. Ordenagailu bidez informatu ginen flyscha erakusteko egiten den itsasontzi bidaiaz eta horregatik etorri gara. Halere, aurretik ere herrian izanda nago.

Oscar Sanchez eta Belen Comas: Egia esan Donostiatik gentozen Zarautz aldera eta irratan entzun dugu *Game of Thrones* grabatu behar zutela hemen. Hori dela eta esan dugu: "Hara badoaz, ziur ikusteko leku ederren bat badagoela".

Jorge Alonso eta Cintia Castello: Euskal Herrira etorri gara oporretan. Bilbon hartu dugu ostatu eta Donostiarantz gindoazela Zumaian *8 apellidos vascos* pelikulako ermita zegoela gogoratu gara. Zer gertatu zaigu? Hondartza ikustean, benetan ederra, bertan geratu garela egun guztia.

Sergio Lasuen eta Silvia Aranda: Hondartza etorri nahi genuen eta inguru hau ederra dela esan digute. Pixka bat ezagutzearren. Bertan izan diren lagunengatik izan dugu herriaren berri.

Jose Luis Rodriguez: Jaieguna nuen gaur eta egun pasa bat egitera etorri gara. Kosta giroaren bila esan genezake.

Manolo Alvarez: Lekua ezagutzen duen lagun bat dugu eta herria bisitatzeko aholkatu

zigun. *8 apellidos vascos* filmarengatik ere badugu honen berri. Herria ikusteko asmoarekin etorri gara.

Javier Anell: Oraindik bisitatu gabe geneukan zonalde bat da eta oporraldi hau aprobetxatu dugu Euskal Herria bisitatzera etortzeko. Donostiatik abiatu gara eta kostaldeko errepidea hartuta bidea egiten gabiltza. Zumaia bere alde zaharrarengatik erakarri gaitu, hemengo jendeaz ere oso ongi hitz egin digute. Hemen egon diren lagunak ere gomendatu digute. Noski, San Telmo ermita ere bisitatu beharrekoa. Pelikulak (*8 apellidos vascos*) asko eragin du herria ezagutzera emateko orduan.

Maria Jesus Lasa: Lagunari Zumaiaiko paisaiak erakustera etorri naiz gaurkoan. Madrildarra da eta ez zuen ingurua ezagutzen. Itzurun hondartza ikusten egon gara eta hemen zortzi abizen euskaldunen pelikula hori egin denez, ermita ezagun hori erakustera etorriko ginela esan diot. Pentsio bat dut nik Donostian eta Argentinako jendea ere bidali izan dut Zumaia ikustera, merezi du eta.

Aurkiturikoak zuen espektatibak bete al ditu?

Iosu Ancin eta Sara Fernandez: Orain goaz herria bisitatzera. Hala ere, hemen egonak gara flyscha ikusten. Mutriku eta kostaldeko gainontzeko herrien antza du.

Chefe Martinez: Bai, herri polita da. Konpetentzia handia du inguruan, Getariak izen ona du, adibidez. Azkenaldian etorri den jende askok esan digu kostaldea masifikatuta dagoela, ezin autoa aparkatu eta..., batez ere Donostia. Alderdi horretatik, neurriak hartu behar dira, lasaitasun bila datorren jendearengatik. Ni lasaitasun bila mugitzen naiz.



Jorge Alonso, 25 urte, eta **Cintia Castello**, 24 urte, valentziarrak Mediterraneon aurkitu ezin duten lasaitasunaren bila etorri dira Euskal Herrira.



Sergio Lasuen, 25 urte, eta **Silvia Aranda**, 19 urte, lehena nafarra da eta bigarrena errioxarra, lagunak aholkatuta iritsi dira Zumaia.

Oscar Sanchez eta Belen Comas: Herria ederra da, telesaila alde batera utzita ere. Bis-tak zoragarriak dira.

Jorge Alonso eta Cintia Castello: Askoz ge-hiago! Oso ongi jan dugu. Eta oraintxe ari ginen hizketan, ziur itzuliko garela.

Sergio Lasuen eta Silvia Aranda: Bai, bete ditu. Goizean hondartzan egon gara eta arratsaldean herria bisitatzen.

Jose Luis Rodriguez: Bai, gauza berezirik egiteko asmorik ez nuen gaurkoan. Bueltatxo bat emateko leku aproposa da.

Manolo Alvarez: Bai, noski baietz. Oso ongi dago.

Javier Anell: Ikaragarri. Paisaia eta itsaslabar ikusgarriak daude hemen, oso ongi jaten da. Jendearen jarrera ere oso ona da.

Maria Jesus Lasa: Jendearen espektatibak betetzen ditu. Hasi itsasorantz doan paseotik, Itzurungo hondartza eta San Telmo ermitako paisaiak.

Zer gustatu zaizue?

Chefe Martinez: Herri polita da, inguruan ere, Zarautzera edo Debara erraz mugi zaitezke. Paisaia ere ederra da; deigarria eta originala.

Oscar Sanchez eta Belen Comas: Hondar-tza (Itzurun) gustatu zaigu gehien. Euskal Herriak duen paisaia mota hau, mendia eta bat-batean itsasoa duzu.

Jorge Alonso eta Cintia Castello: Gehien gustatu zaiguna hondartza izan da.

Sergio Lasuen eta Silvia Aranda: Itsasla-barrak eskaintzen dituen bistak dira gehien gustatu zaiguna.

Jose Luis Rodriguez: Herri polita da. Batez ere kosta giroa gustatzen zait. Tabernetan tra-gotxo batzuk hartzea.

Manolo Alvarez: Oraintsu hasi gara bisitat-zen. San Telmo ermitatik ikus daitekeen pai-saia, ordea, oso ederra da.

Javier Anell: Gehien gustatu zaiguna paisaia eta jendearen jarrera izan dira.

Maria Jesus Lasa: Oro har, guztia gustatzen zaie nik bidali ditudanei, baina batez ere San Telmoko ermita eta hondartza. Itzurunek ere fama handia hartu du, eginiko azterketak di-rela eta.

Zeren falta sumatu duzue, zer daukagu hobetzeko? (mugikortasuna, informazioa, panelak, hizkuntzak...)

Iosu Ancin eta Sara Fernandez: Autobus es-tazioa oso urrun dago. Erdigunera etortzeko dezente ibili behar izan dugu.

Chefe Martinez: Ez dakit zer esan. Jendea baldin badator zerbaitegatik da. Turismo bu-legoa hobetzea baino garrantzitsuagoa da sa-rean jartzen dena zaintzea. Gaur egun horrela funtzionatzen du. Hotelek ere bilatzaileen bi-dez egiten dute guztia. Udalaren edo herria-ren web orriak ikusi beharreko leku guztien berri eman beharko luke.

Oscar Sanchez eta Belen Comas: Guri ez zaigu ezer falta izan. Jendea oso adeitsua da. Guztiaz informatu gaituzte, hori eta bestea bisitatu dezakegula esan digute arazorik gabe. Ez dugu inongo kexarik.

Jorge Alonso eta Cintia Castello: Errepidea honaino iritsi dadila (San Telmo ermita) [kar, kar, kar!]. Internet bidez hondartza eta ermi-taren berri jakin dugu, baina ziur bertakoek leku ikusgarri gehiago badakizkitela.

Sergio Lasuen eta Silvia Aranda: Ez digu akatsak aurkitzeko bezain besteko denborarik eman. Oraingoz dena ongi doa.

Jose Luis Rodriguez: Ez dakit, b,a nik. Urre-txutik autoz etorri gara, autobusez ere etor-tzen dira. Errepidea kaxkarra da, baina...

Manolo Alvarez: Orain ikusiko dugu, bai-na ongi dagoela dirudi. Informazioa eskatu dugu eta ongi eta azkar eman digute.

Javier Anell: Seguru egongo dela zerbait hobetzeko. Hemen bi egun daramatzagu eta orain arte ikusi dugun guztia positiboa da.

Maria Jesus Lasa: Beti egin daiteke gehiago. Zumaia oso ongi komunikatuta dago, Bilbo-rako trenara iristen da, autobus ugari ere bai. Hobetu daitekeela ez dut ukatuko, baina oso ongi dago. Nik hona japoniarrak, frantsesak eta denetik bidali dut. Oso pozik egin izan dute bidaia. Beti ere gehiago baldin badago, hobe. Ez dut sekula kexarik jaso.



Jose Luis Rodriguez, 56 urte, Urretxutik irten eta eguna pasatzeko egin du Zumaia aldera.



Manolo Alvarez, 60 urte, familiarekin oporretan dabilen galiziarra da.



Maria Jesus Lasa, 67 urte, goierritarra izan arren, Donostian pentsio baten jabe da eta bertara iristen direnei Zumaia bisitatzeko aholkatu ohi die.



Javier Anell, 53 urte, emaztearekin Euskal Herria bisitatzera etorri den bartzelonarra.

TURISMOA ZUMAIARREN BEGIETAN

EGILEAK: IOSU ALBERDI ETA JABI GONZALEZ TOSTON

Pozik al zaude turismoak Zumaian izan duen gorakadarekin? Kezkarik sorrarazten dizu?

Javier Arregi: Bai, pozik nago turismoak Zumaian hartu duen gorakadarekin. Gure aberastasunak eta ingurunea erakusten dizkiegu kanpotarrei. Gainera, kontuan hartuta, egunkari eta dokumental askotan gure herria agertzen dela, horrek jende gehiago erakartzen du, eta hori oso mesedegarria dela iruditzen zait.

Turismoaren inguruan sor daitezkeen kezkei dagokienez, gorakada honek ekarri duen jende kopuru handiak, behar batzuk sortzen ditu herrian, eta horrek jendeari zalantzak sortzen dizkio. Behar horiei nola erantzun zaien ikusi behar da. Jatetxe ugari dago, baina, halere, agian indartu egin beharko lirateke. Halere, tabernariak gustura daude, negozioa ondo joan zaie eta zerbitzu ona eman dute orokorrean. Gainera, iruditzen zait herritarren artean ere ez dagoela kezkarik, gu ere ondo tratatu gaituztelako.

Amets Arantzeta eta Ainhoa Leturiondo: Guregan ez du eragin handia izan, egia esan. Hori bai, ikusten da kalean jende gehiago dabilela. Halere, ez nuke esango pozik nagoenik. Batzuetan estresagarriak dira azkenaldian sortu diren trafikoa eta aparkatzeko arazoak, Zumaia kaleetan eta hondartzan dabilen jende kopuruarengatik. Guri iruditzen zaiguna da Zumaia, herri txiki bat izanik, ez dagoela prestatuta turismoaren horrelako gorakada bat jasateko. Herria gainezka aurkitu dugu sarritan, kanpoan afaldu nahi eta tokirik ez edo pote batzuk lasai hartu nahi eta tabernak gainezka aurkitu ditugu, esaterako.

Patxi Noriega: Bai, egia esan pozik nago herriak erakartzen duen jende kopuruarekin. Atsegina da kanpotarrak ikustea. Niri ez dit inongo kezka edo zalantzarik sortzen egoera honek. Herriarentzat mesedegarria dela iruditzen zait, azken batean, turistek gastatu egiten dute gure herrian. Asko kexatu egiten dira, baina niri atzeritarren batek zerbitzengatik galdetzean gustura erantzuten diot, ez dit enbarazurik eragiten.

Alfredo Zabaleta: Nik uste herriarentzat ona dela, ezagutzera ematen delako. Gertatu dena da, guztia batera eta bat-batean etorri dela. Horrelako kolpe handi bat espero ez genuenez, herrian erretxazo moduko bat sortu du. Dagoen kezka orokorra batez ere trafikoari lotua dagoela uste dut. Herriak turista asko erakartzeak ez ninduke asko kezkatuko, turismo hori modu ordenatuan etorriko balitz. Hori uste dut izan daitekeela herriari falta zaiona. Izan ere, ondo dago turistek gure herriak dituen gauza onak gozatu ahal izatea, baina ordena baten barruan. Jende asko etortzeak ez nau bereziki kezkatzen, azken batean 3 hilabete direlako urtean, eta gero dena normalizatu egiten da.

Raquel Saez eta Ana Saez: Bai, guk uste dugu beti dela ona herriarentzat ezaguna izatea eta jendea erakartzea. Egia da herriak bere xarma ere galtzen duela zentzu askotan. Lehen oso lasaiak ziren parajeak jendez gainezka aurkitzen ditugu bat-batean. Halere, esan beharra dago horrek ere bizitasuna ematen diola herriari. Herriak agian lasaitasuna galduko duen arren, ekonomikoki ere indartuko da. Guztiak ezin du ona izan beti. Egia esan, guk gustuko dugu jendea etortzea, zer herri polita den ikus dezaten eta guk bezala gozatzeko aukera izan dezaten.

Itziar Errandonea: Pozik nago bertako komertzioentzat ona izan delako. Halere, guztiak bezala izan ditu bere alde txarrak ere, uste dudalako aparkalekuak batez ere herritarrentzat ere mugatu egin zaizkigula. Gainera, herriak beti izan duen lasaitasuna zerbait galdu dela iruditzen zait. Ez dut nahi pentsatu hurrengo hilabetean filmatuko duten *Game of Thrones* telesailarekin zer gertatuko den datorren urtera begira.

Zein alde on eta txar ikusten dizkiozu Zumaia gunen turistikotik garrantzitsu bihurtu izanari?

Javier Arregi: Alde on bezala, turismoak herriari egiten dion mesedea ikusten dut. Baina, baita ere, mundu guztira zabaltzen dela Zumaia izena, eta hori aberastasun handia iruditzen zait. Udalak beti egiten ditu ahaleginak jendea erakartzeko, hortik sortzen delako aberastasuna, eta lortzen ari da. Alde txar bezala, prestakuntza falta ikusten dut. Izan ere, iruditzen zait seinalizazio falta dagoela. Hori dela eta, turistak askotan galdu egiten dira eta herritarroki galdetu behar digute hara eta hona nola iritsi jakiteko.

Amets Arantzeta eta Ainhoa Leturiondo: Alde ona ostalaritzan antzemango zuten, horiei azkenean negozioa ondo joan zaielako. Baina, guri behintzat, onurarik ez digu ekarri.

Patxi Noriega: Egia esan, ez diot alde txarrak ikusten. Batzuk herriaren lasaitasuna galtzen dela dioten arren, niri ez zait iruditzen hala denik. Hori norberaren arabera dela diot nik. Are gehiago: jendea erakartzea ona dela iruditzen zait, bizitasuna ematen dio herriari, ekonomikoki indartzeaz gain. Dendek eta tabernek etekin handiagoak ateratzen dituzte.

Alfredo Zabaleta: Argi dago alde onen barruan, aberasgarria dela hainbeste turista erakartzea. Bereiziki ostalaritzarentzat, etekin handiak sortzen direlako sektore horren barruan eta lanpostuak ere sortzen dituelako. Horrez gain, nabarmentasuna lortzen du herriak, ezaguna bihurtzen delako. Alde txarrei dagokienez, uste dut, ez dugula behar bezala aurreikusi gainera etorri zaigun kaosa. Beraz, orain, kaos hori nola kudeatu hausnartu beharko genuke, turismoa iraunkorra izateko masifikazioak saihestuz.

Raquel Saez eta Ana Saez: Alde txarra aipatzekotan, lehen bakarrik egon zintezkeen tokietan orain beti dagoela jendea da azpimarragarriena. Baita ere, ostalaritzak bezeroak zaintzeko moduan ere okerrera egin du, kalitatean galdu dela iruditzen zaigu. Agian jendea ugaritu denez, eta tabernariak lan asko dutenez, ez dituzte bezeroak lehen bezain egoki zaintzen.

Itziar Errandonea: Alde on bezala, herria irabazten ari den fama hori ikusten dut, aipatu dudan merkataritzak izan duen gorakada gain. Alde txarrei dagokienez, aipaturikoa, herritarrok enbarazu asko aurkitzen ditugula barnealdean batez ere, aparkatzeko orduan eta horrelakoak.

Nolako turismoa nahiko zenuke Zumaiaarentzat?

Javier Arregi: Nik, pertsonalki, gazte jendearen falta sumatu dut. Heldu eta adin zaharreko jende ugari ikusten da, baina gazteak gutxi. Beraz, gazte jende gehiago etortzea nahiko nuke. Gazte jendea erakartzen ahalegindu beharko genuke.



Alfredo Zabaleta: 57 urte



Itziar Errandonea: 29 urte



Javier Arregi: 71 urte



Patxi Noriega: 55 urte

Ana Bringas: Dendaria (Erribera kaleko Rose Quarts denda), 32 urte



Raquel Saez:
Bartzelonakoa, baina zumaian bizi da, 40 urte
eta Ana Saez:
Bartzelonakoa da, 44 urte



Amets Arantzeta eta Ainhoa Leturiondo: 28 urte biek

Amets Arantzeta eta Ainhoa Leturiondo: Argi daukagu Zarauzkoa bezalako turismoa ez dugula nahi, behintzat. Gazte jende gehiegi eta desfase handia dagoela iruditzen zaigu. Turismo familiarragoa iruditzen zaigu egokiagoa. Turismo lasaia. Inolaz ere ez dugu nahi Saloukoa bezalako turismo bat.

Patxi Noriega: Herrian gastua egiten duten turistak nahi ditut nik. Bazkaltera geratzen direnak, adibidez. Ez ikusi beharrekoak ikusi eta alde egiten dutenak. Jende parte hartzailea nahi dut eguna pasatzera geratzen direnak eta gastua egiten dutenak.

Alfredo Zabaleta: Uste dut klase ertaineko turismoa litzatekeela egokiena. Turismo arrunta. Turismo orekatua litzateke egokiena, gazteak zein helduak erakartzen dituen, eta ahalmen ekonomikoa arrunta dutena.

Raquel Saez eta Ana Saez: Herriko bizikidetza errespetatzen duen jendea da nahi duguna. Hori da oinarritzakoa. Ez dugu nahi Mediterraneoan aurkitzen duzun turismoa hona etortzea. Alkohola edatera eta gauzak apurtzera besterik etortzen ez den jendearekin. Eta nola ez, gastatuko duten turistak ere nahi ditugu, noski.

Itziar Errandonea: Turismo kontrolatuagoa nahiko nuke, ez aurtengo abuztuan izan dugun turismo kaotikoa bezalako, nabarmen igo dela iruditu baitzait. Turismo mailakatuagoa litzateke proposena.

Zerbait gehitu nahi diozu esandako guztiari?

Javier Arregi: Iruditzen zait ideia hona litzatekeela herrian gida turistikoak eta horrelakoak jartzea. Lehen aipatu dudana bezala, turistak askotan galdu egiten dira eta alde batetik bestera eramango lituzkeen eta guztia azalduko lieken norbait egongo baltz, asko eskertuko lukete, bai beraiek eta bai guk, herritarrok.

Alfredo Zabaleta: Nik Udalari egoera analizatzeko eskatuko nioke, aipaturiko kaosa saihesteko, herrigunean batez ere. Gainera, uste dut hori dela guztiok eskatzen duguna. Zer jende mota etortzen den kontrolatzeari dagokionez, bakoitzaren ahalmen ekonomikoen mende dago batez ere. Izan ere, Euskal Herria garestia da. ■

Pozik al zaude turismoak Zumaian izan duen gorakadarekin? Eta negozio bat duzula kontuan hartuta, nola eragin du turismoak horretan?

Egia da turismo dezente izan dugula herrian eta hori niretzat positiboa da. Hala ere, nik uste dut dendetan, eta nirea bezalako sektoreetan, ehungintzan, bereziki, ez dela horrenbeste antzematen. Badaude nire dendan erosi duten turistak, noski, baina gure bezero potentzialak herritarrek dira, batik bat, lokaletik bizi gara. Orain dela 6 hilabete ireki dugu, oraintxe hasi gara eta hori da antzeman duguna. Turismo zertxobait ere etortzen da, baina ez da gure bezero ohikoena oraindik. Gainera, orain arte izan dugun turismo gehiena turismo ibiltaria da, hau da herria eta flyscha ikusiz paseatzera etortzen dena. Ez da erosketak egiteko intentzioarekin etortzen den turismoa. Egiten duten gastu gehiena ostalaritzan egiten dute. Halere, positiboki ikusten dut. Izan ere, bizitasuna ematen dio herriari, eta gutxi izan arren, gurea bezalako dendetan ere egiten dute gasturen bat.

Hainbat herritarrengan kezka sortu dira turismoareen gorakadaren ondorioz. Zuk, zumaia bezala, nola ikusten duzu?

Horrelako jende mugimenduek beti bere alde on eta txarrak dituzte. Alde on bezala, agian esan daiteke herria erakargarriago bihurtzen dela, mugimendu gehiago dagoela edo merkataritza indartu egiten dela, esaterako, batez ere ostalaritzaren sektorean. Halere, ulertzen ditut herritarrek izan ditzaketen kezka eta beldurrak. Sarritan horrelako aldaketetara moldatzea ez delako erraza, bereziki gurean gertatu den bezala, bat-batean gertatu direnean. Azkenean, herrian nagusi zen bizimodu lasaia galdu egin da, zentzu handi batean. **Zein alde on eta txar ikusten dizkiozu Zumaia gune turistikoko garrantzitsu bihurtu izanari?**

Uste dut beti dela ona kanpoko jendea etortzea, bai ekonomikoki indartzen garelako, bai sozialki ere ireki egiten garelako. Azkenean gure herritxo txikia munduari atea zabaltzen ari zaio. Beste alde batetik, ordea, uste dut, herri txikia garenez, muga batzuk ditugula eta kontzeptu hori jendeari ez badiogu, transmititzen gure lasaitasuna apur daiteke, eta hori ez da ona. Turistek ulertu behar dute beraiek "pasean" datozela eta gu hemen bizi garelako urte osoan, eta, beraz, zaindu egin behar dutela ingurunea.

Nolako turismoa nahiko zenuke Zumaiaarentzat?

Herria ikustera soilik etortzen ez diren turistak nahi ditut nik. Hau da, herria ondo ezagutu nahi dutenak eta bertakoekin nahasten direnak, erlazio apur bat egiten ahalegintzen direnak, bizikidetza errespetatzen dutenak eta erosketa batzuk egiten dituztenak, noski.

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700

Egin zaitez
BALEIKEO
bazkide



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

BEEP

DIGITAL+



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045

ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren
eta tableten konponketak

Beheko plaza

tel./faxa: 943 143 395

Rosi

Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

FLYSCH UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel: 943 11 63 97

Galdona



burdindegia

Mendataro murrutela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 300

Ganbara

TABERNA

Juan Belmonte, 5

tel. 943 861 057



kafetegia

Txomin Agirre kala

Tel. 943862181

GLENCOE

INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



Zapaia

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

yoana ileapaindegia

Amaia plaza,
2 beheha
943 143 278



Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943 865 020
info@goldengateinstitute.com



Zakila Bira lasterketa jokatu zen urriaren 1ean. Korrika saioa hasi aurretik, urteko kirolari onenen saria jaso zuten Iñigo Peña piraguitak eta Pulpo eskubaloitako taldeko neskek. Erabakia hartzeko, kirol elkarteek proposatutako izenak hartu dituzte Udalak kontutan. David Garcia eta Gema Hernandez izan dira aurtengo Zakila Birako irabazleak. Zumaiarren artean, Jonan Rodriguez eta Sonia Albarez izan dira azkarrenak.



gortu
2016-09-25 21:29

Eginon .eus

Atzo, hilak 24, goizean asti pixka bat bagenuela aprobetxatuz, Eginora hurbildu ginen, Leze inguruko eremura. Bide laburrak eta erraz samarrak dira oro har, baina haitz ederrekoak. Sarean dagoen krokis baten arabera (gaztelania hutsez dago), eskalatzen hasteko egoki-egokia da. Lau sektore ...



Zumaiako Herri Eskola
2016-09-26 23:35

IKASKUNTZA KOOPERATIBOA

Nahiz eta urte batzuk eraman gure eguneroko lanean Lankidetzako teknikak erabiltzen, 2016-2017 ikasturteetik aurrera Zumaiako Herri Eskolako proiektu m



ateki
2016-10-02 08:13

Mugarriena: 2016-10-15

Egiteko asmoa daukaguz gehienok badakizue noizko daukagun hitzordua, baina beti izaten da despistaturen bat eta kalterik ez akordaraztea: urriaren 15ean, larunbatean, egingo dugu mugarrien ibilaldia. Aurtengoan baditugu nobedade batzuk; adibidez, mugarririk "berriak" Narrondo-San Lorente-Kantera inguruan, eta Santakruterrekako mugarririk zuzenean Zigotzara ...



HERENSUGEAK ITZURUNEN

TESTUA: JOSU WALIÑO
IRUDIA: DANI CARBALLO

*Ur azala beltz ageri da, oihal beltzek estalia,
Itsaso Meharra alderik alde zeharkatzen
duten itsasontzien oihalaren kolorea.
Beltzaren gainean gorriz hiru buruko
herensugearen ikurra ageri da bela guztietan,
harro, Daenerys Targaryen-en ikurra delako,
herensugeen ama, Andaloen erregina,
Westeroseko konkistara abiatu den Khaleesi
izugarria.*

*Ehunka dira Daenerysen flota osatzen
duten itsasontziak, guztiak gerlariz
goraino beteta: esklabutzatik liberatutako
Orbangabeak, batetik; Daenerysen alde
jarritako Krakenaren semeak, bestetik; eta,
azkenik, itsasoari dioten izua gaindituz
haien Khalessiari jarraitzen dioten Dothraki
basatiak. Lasai doaz gerlariak, badakitelako
beste inork ez duen arma dutela alde: Drogon,
Rhaegal eta Viserion, sua eta izua zabaltzeko
prest dauden hiru herensuge beldurgarriak.*

*Herensugeak flotaren aurretik doaz, zerua
zeharkatuz, gudaren prestutasunean sua
jaurtiz, airetik ikusgai dutelako bere
helburua: Itzurungo labarrak, eta gailurrean
harro, zerura altxatzen den Dragonstone
gatzelua, Targaryen familiaren gotorlekua.
Bere arbasoen etxea berreskuratuz abiatuko
du Daenerys Targaryen-ek Westerosko
konkista, leinuz dagokion Burdin tronua
berreskuratzeko asmoz.*



Martinen mundura gerturatzeko gomendioak

A song of ice and fire gustatuko zaizuen zalantzan egonez gero, edo jarraitzaile baldin bazarete, hona George R. R. Martinen mundu literarioa hobeto ezagutzeko lau gomendio:

- ***Tales of Dunk and Egg***. Liburu bakarrean bildutako istorio laburrak dira, *A song of ice and fire* unibertsoaren parte dira, baina 100 urte lehenago kokatuta daudenez, modu independentean irakur daitezke.
- ***Fevre dream***. 1982an argitaratutako banpiro liburua da hau. XIX. mendeko Mississippi ibaian kokatzen da istorioa eta kritiko askok Bram Stoker eta Mark Twain-en arteko nahasketa moduan deskribatu dute. Banpiroen liburu bikaina eta originala.
- ***Wild Cards***. Superheroien unibertso antologiko baten bildumak dira hauek. Martinek editore lana egiten du hemen, eta fantasiaren alorreko 30 egile ezagunek parte hartzen dute idazketa lanetan. Telesaila prestatzen hasiak dira jada.
- **Komiki, mahai joko, etab**. Dena ez da liburu eta telebista. Martinek idatzitako lan gehienen inguruko komiki, mahai joko, bideo joko eta bestelako formatuetarako egokitzen aurki daitezke.





Barkatuko didazue lizentzia. Ez naiz George R. R. Martin, ezta ametsetan ere, baina ezin izan diot uko egin *Game of Thrones* Zumaian errodatzean Itzurunen irudikatuko duten eszena nolakoa izan daitekeen euskaraz kontatzeko tentazioari.

2008. urteko udazkena zen nire lehen liburua aurkeztu nuenean: *Bederatzi ateak*. Arraroa zen euskaraz fantasiaren alorreko liburu bat argitaratzea, baina prentsurrekoaren ondoren Fernando Morillo eta biok editorearekin hizketan ari ginela, literatura fantastikoa euskaraz argitaratzen jarraitzeko zuen interesa azaldu zigun azken honek. Gogoan dut Fernandok eta biok deskubritu berri genuen liburu serie bat gomendatu geniola, *A song of ice and fire*; Kataluniako argitaletxe txiki batek argitaratzen zituen gaztelaniaz, ez ziren ezagunak, baina bikainak ziren. Luzeegiak, zoritxarrez, itzuli eta argitaratzeko, inbertsio handia eskatzen zuten, arrisku handiegia. Urte gutxi batzuk geroago, liburu serie hura mundu mailako fenomeno bilakatu zen *Game of thrones* telebistako serieari esker.

Paperetik telebistara

Aurten 20 urte bete dira George R. R. Martinek *A song of ice and fire* serieko lehen liburua, *Game of Thrones*, argitaratu zuenetik. Lehen liburu hura trilogia baten hasiera baino ez zen, baina berehala ohartu zen Martin buruan zuen istorioa handiegia zela. Lana berrantolatu, eta zazpi liburu proiektatu zituen orduan. Orain arte, horietatik bost argitaratu ditu, eta seigarrena datorren urtean aterako dela espero da. Azken liburua, *A dream of spring*, noiz argitaratuko duen ez dago esaterik.

Liburu serie honek hasieran ez zuen berebiziko arrakastarik izan, ahoz ahoko gomendioei esker egin zen ezagun, eta Estatuan ere generoan espezializatutako Bartzelonako Gigamesh liburu dendak argitaratu zuen. Baina ahoz ahokoa indartzearekin batera, eta bereziki Robert Jordanen laudorio publikoen ondorioz, liburuaren arrakasta handitzen joan zen, eta 2011. urtean HBOK telebista

seriea emititzeari ekin zion. Hortik aurrerakoa ezaguna da: fenomeno globala, liburuaren salmenta telebistan seriea emititzen hastearekin batera biderkatzea eta mundu osoko milioika jarraitzaile istorioarekin txundituta.

Une honetan zenbakiak ikaragarriak dira alor guztietan, bai liburuarenak, bai telesailarenak: gaur arte 60 milioi liburu baino gehiago saldu dira, eta 2.000 pertsonaia izendun baino gehiago agertzen dira istorioan. Telesailak, bere aldetik, 25 milioi ikusle ditu kapitulu bakoitzeko mundu guztian, eta historian Emmy sari gehien jaso dituen telesaila da, 38 sarirekin. Denboraldi bakoitzak 100 milioi dolarreko aurrekontua du 10 kapitulu egiteko, baina azken bi denboraldiak laburragoak izango dira, bien artean 13 kapitulu bakarrik izango dituztelarik. Ikusgarriagoak izatea espero da, beraz.

Zumaian zer?

Zoritxarrez telebistaren produkzioa literatur produkzioa baino azkarragoa da, eta une honetan zazpigarren denboraldia ari dira grabatzen, azkenaurrekoa. Horrek esan nahi du liburuei aurre hartu diotela jada, eta, beraz, azken denboraldian ikusi genituen ekintza asko liburuetan ez ditugula irakurri oraindik. Zumaian grabatuko duten denboraldia erabat berria izango da zaleentzat, liburuaren aurretik doazelako; horregatik, Itzurunen egingo den grabazioa zer izango den ez dakigu oraindik, baina imajina dezakegu zer izan daitekeen, bai fikzioaren ikuspegitik, baita errealitatearen ikuspegitik ere.

Eskura dagoen informazio apurretik abiatuta eta Itzurunek dituen ezaugarriak kontuan hartuz, Zumaian errodatuko dena irudikatzeraz ausartu da *Baleike*. Hor duzue Dani Carballoren ilustrazio bikaina, artikulu hau irekitzen duen testua irudikatuz. Ez dago esaterik asmatuko dugun, baina ziur emaitza hau ala beste bat izan, ikusgarria izango dela. ■

Gure-Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiak
Tel.: 943 86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran ingaterrara ingelesa praktikatzera

www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

ilarzi



Alai auzategia, 2
Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

Iriondo optika



Kantauri plaza, 8. Zumaiak. tel.: 943 86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

IRUDI OTS



Ikuskizun orofarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943 63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ



Ileapaindegia Mistoak

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
Tel.: 943 860 760

TXALAPARTA
OPARIK



Angelos Soraru, 2
20750 ZUMAIK (Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
fax: 943 430 637

Talaira
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

ORRAZTEGI
ZUMAIK



943 862 083

JUARISTI
jatetxea


Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Baso-izategia, 10 tel. 943 05 05 77


JUSTA
taberna

Erribera kalea, 20 www.justataberna.com
tel. 943 861 405 justa@justataberna.com

K&BI Patxiak Etazarrak, 15
943 143 427



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
tel. 943 862 517

Kresala
Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869

kuttun
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936



TESTUA ETA ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

TAO Zumaian

Zarautz eta Orioko
ereduak aztergai

Datorren urterako herriko aparkalekuak arautzeko asmoa iragarri du Zumaia Udalak. Dagoeneko lehen urratsa egin du, propio Ardantzabide auzorako aurkeztutako ordenantzarekin – aparkalekuen erdia baino gehiago auzotarrentzat gordeko ditu–; baina herri osoa nola arautu oraindik ere lantzen ari da. Larretxo eta Ondar Gaineko bizilagunekin bildu dira udal ordezkariak, eta urrian bilera gehiago egingo dituztela iragarri dute. Zumaia TAO nolakoa izango den erabaki bitartean, oso gertu dauzkagun bi eredu aztertu ditugu, Zarauzkoa eta Oriokoa, alderaketak erabakitzen lagun dezakeelakoan.

BALEIKE + Orioko TAO eredua Mugatua bai, baina doakoa

Orion 2000 urtearen bueltan erabaki zuten aparkalekuak arautzeko sistema bat ezartzea. Orduz geroztik egin dute al-daketaren bat, baina sistemaren oinarria berbera da: erdiguneko aparkalekuak doan bai, baina denbora mugatuarekin. Orioko udaltzainburu Jose Carrera *Txanka*-k eman dizkigu azalpenak.

Herriko hainbat kaletan espaloiak zabaldu eta galtzada estutu zutenean ikusi zuen Carrerak aparkalekuak arautzen hasteko premia. “Ordura arte, kotxea momentu baterako bigarren ilaran utzita ere bazegoen trafikoarentzat lekua. Baina espaloiak zabaldu zirenean, hori ez zen posible. Soluzio bat behar genuen”. Horrez gain, konturatuta zeuden herritar batzuek ez zutela kotxea mugitzen 10-15 egunetan, ez zutelako beharrik. Eta horrek ere irtenbide bat behar zuela pentsatu zuten. Hortik abiatuta hasi ziren gaur egun indarrean dagoen sistema lantzen.

Nola dauzkazue araututa aparkalekuak Orion?

Orion dauzkagu aparkaleku libreak –marra zuriekin–, eta aparkaleku mugatuak –marra urdinekin–. Horiek herrigunear. Eta aparte, aparkatzeko bi gune handi dauzkagu, bat hondartza aldean eta bestea futbolzelaia inguruan; horietan TAO dago udan eta neguan libre.

Baina erdiguneko marra urdindun aparkalekuak ez dira ordainpekoak, ez dago makinarik kalean...

Ez, doan dira, baina denbora daukate mugatuta. Gehienez, 30 minutuz aparka daiteke horietan. Hasieran 15 minutu ziren, baina konturatu ginen gutxitxo zela mandatuak eta gestioak egiteko.

Zer helbururekin bereiztu dituzue marra urdinekoak?

Gure helburua da txandakatze handia egotea, aparkaleku horiek erabiltzea mandatuak edo gestioak egiteko, eta ez denbora luzez kotxea bertan uzteko. Guk ez dugu aparkaleku bat eskaintzen diruaren truke. Hori ez da helburua. Dauzkagun aparkalekuei ahalik eta eraginkortasun handiena ateratzea da kontua.

Eta eremu urdinak non daude?

Herriaren sarreran, plazan eta Eusko Gudari osoan. Beste kaleren bat ere badago urdinez, denda eta taberna asko daukelako eta mugimendu handia dagoelako. Inguru hauetan, aparkaleku urdinez gain, badaude batzuk zuriak, libreak. Adibidez, moilan, edo Eusko Gudari kalearen amaieran.

Eta eremu urdinak ordutegi jakin bat al dauka?

Komertzioari begira pentsatuta dagoenez, haien ordutegiarekin doa, baina pixka bat zabalago. Goizeko 8:00etatik 13:00etara, eta 16:30etik 20:00etara. Eta malgutasun pixka bat ere badaukagu, 40-45 minutuz utz daiteke kotxea. Ordu-tegi horrek ondo funtzionatzen du. Eguerdian etxera bazkaltzera datorrenak aukera du kotxea eremu urdinean uzteko,



ordu tarte horretan libre delako. Eta gauzez ere bertan aparka daiteke. Eta kotxea egunero behar ez duenak, aparkaleku zuriak dauzka edo aipatutako beste bi aparkaleku handi horiek. **Baina oriotarrek kotxean badute TAO txartela. Hori zertarako da?**

Hori da, hain zuzen ere, hondartzako eta futbolzelaiko aparkaleku handi horietan uda partean doan aparkatu ahal izateko.

Beraz, TAO txartel horrek ez du zerikusirik herrigunear dauden aparkaleku urdinekin?

Ez, herriguneko aparkaleku urdinak denentzat dira berdin: aparkatzea doan da, baina denbora mugarekin.

Eta kanpotarrek hala ulertzen al dute?

Normalean makina bila hasten dira... Espikatzen diegu nola funtzionatzen duen sistemak, eta ondo moldatzen dira. Egun osorako badatoz, aparkaleku handietara bideratzen ditugu. Bestela, adibidez, bazkaltzera badatoz, urdinetan utzita ere molda daitezke, eguerdiko tarte horretan libre delako.

TAO txartel hori nork eska dezake?

Orion erroldatutakoek; isunak eta zergak ordainduta izatea eskatzen da.

Eta bigarren etxebizitza dutenek?

Horiek ere eska dezakete, baina etxebizitza bakoitzeko kotxe bakarrarentzat. Eta bestelako kasu berezientzat ere badaude soluzioak: enpresako kotxea erabiltzen dutenentzat, kanpotik lanera datozenentzat...

Zamalanetarako lekuak bereiztu al dituzue?

Ez, ez ditugu bereiztu, bestela aparkaleku horiek egunaren parterik handienean erabili gabe gelditzen dira eta. Gremioek-eta eremu urdina erabil dezakete eta denbora gehiago uzten diegu, behararren arabera.



Gorritz marraztutako eremu txiki bat ere badago. Horrek zer berezitasun du?

Auzo hori dago justu autopistako zubia baino lehen, hondartzako TAO aparkalekuarekin mugan. Udan zer gertatzen zen lehen? Ba, mugan zegoenez eta aparkalekuak libreak zirenez, kanpotar askok hor aparkatzen zutela. Auzo horrek soluzio berezia behar zuela pentsatu genuen, eta horregatik kale batean aparkalekuak gorritz daude. Horrek esan nahi du bertan bakarrik aparka dezaketela TAO txartela dutenek. Berdin du auzokoa izan edo ez, baina TAO txarteldunek soilik.

Eta sistema hau urte osoan al dago indarrean?

Herriguneko eremu urdinak bai, urte osoan. Aldatzen den bakarra da bi aparkaleku handietako TAO. Udan ordaindu egin behar da, eta neguan libre.

Hondartzan eta futbolzelaian daukazuen bi aparkaleku handi horietan zenbat kotxe sartzen dira?

Hondartza aldean mila inguru, eta besteak 300 bat. [Orion, guztira, 2.000 aparkaleku inguru daude lurrazalean, eta 2.358 lurpeko garaje pribatuetan; erroldatutako ibilgailuak 3.128 dira, horietatik 2.482 kotxeak dira]

Eta asko erabiltzen al dira udan? Irtenbide ona al da?

Bai, asko erabiltzen dira. Aurten 55.000 kotxe ibili dira, batez ere uztailen eta abuztuan. Soluzio ona da udan.

Eta kibraketa sistema hori zuek kudeatzen al duzue?

Bai. Tiketentzako makinak alokatzen ditugu, baina Udala bera arduratzen da kudeatzeaz [ekainetik irailera lau udaltzain gehiago kontratatzen dituzte].



Sistemarentzat hobekuntzarik pentsatu al duzue?

Agian, nahiz eta doan izan, eremu urdinetarako makinak jarriko genituzke, jendeak tiketa jartzeko kotxean. Baina gastu bat egitea etekinik ez ateratzeko... Uste dugu sistema eroso daukagula. Erdigunera etorri behar baduzu erosketak egitera, kontxearekin mugitzeko arazorik ez daukazu, nahikoa denbora daukazu mandatuak egiteko, tiketa atera gabe eta doan.

Zarauzko TAO eredua

Udan, ordainpekoa herri osoan

Zarauzkoa izango da inguruko herrietan aurki daitekeen TAO sistemarik garatuena, konplexuena. Herri guztira zabaldu dute, eta aparkaleku guztiak daude modu batera edo bestera mugatuta. Alkateorde Jesus Aranak azaldu dizkigu Zarauzko TAOren ezaugarri nagusiak.

Zarautzen badira urte batzuk TAO sistema martxan jarri zutela. Hasieran, erdigunean bakarrik. “Baina hori egiten duzunean ondorioa da arazoa inguruko auzoetara zabaltzen duzula”, dio Zarauzko alkateorde Jesus Aranak. Horregatik, herri osora zabaltzea izan zen hurrengo urratsa. Eta hala dago gaur egun: Zarautzen aparkaleku guztiak daude araututa.

Zergatik erabaki zen Zarautzen TAO sistema martxan jartzea?

Zarautzen aparkalekuekin arazoa dagoela denok dakigu. Batik bat, erdigunean, zerbitzu asko han daudelako, eta zarauztarrak eta inguruko herrietakoak hara joaten direlako. Udan, are nabarmenagoa da arazoa. Zarautzek 23.000 biztanle ditu eta, udan, zenbait egunetan, hirukoiztu egiten da kopurua. Beste datu bat: Zarautzen, lurrazalean, 5.263 aparkaleku daude; kotxeak 10.000tik gora –lur-azpiko aparkaleku pribatuak, 8.300 inguru–. Beraz, baliabide bat eskasa denean, banatu egin behar da; eta horixe da TAO, aparkalekuak banatzeko sistema bat. Dagoen gutxi hori ondo kudeatzea da ideia.

Nola daukazue antolatuta?

Kontuan izan behar ditugu, lehenik eta behin, erabiltzaile motak. Bereiz ditzakegu: herrian bizi diren zarauztarrak; inguruko auzoetan bizi direnak eta eguneroko bizitza Zarautzen egiten dutenak; inguruko herrietatik etortzen direnak; eta, beste bloke batean, bisitari kanpotarrak: batzuk egun bakarrerako etortzen direnak eta beste batzuk opor luzeagoak pasatzera datozenak. Perfil horien guztien beharrei erantzun behar zaie. Horiek aintzat hartuta antolatu ditugu aparkaleku motak.

Zein dira mota horiek?

Hiru aparkaleku mota nagusi bereiztu ditugu: txandakatze edo errotazio handikoak, eremu urdina eta egoliarrentzako aparkalekuak. Lehen mota gehiago zeuden, baina guk sistema sinplifikatu egin dugu.

Esplikatu bakoitza zertan datzan, mesedez.

Txandakatze handiko guneak marra zuri-urdinez daude bereiztuta. Batik bat, komertzio asko dagoen inguruetan daude. Pentsatuta daude jendeak erraztasunak izan ditzan mandatuak edo gestioak egiteko. Beraz, aparkatzeko denbora mugatuta dago: gehienez 90 minutu. Horregatik deitzen zaie txandakatze handikoak. Ez dira kotxea goiz edo egun osoan bertan lagatzeko guneak.

Gune horiek ordainpekoak al dira?

Bai, tiketa erosi egin behar da, herritar izan edo ez izan, egoiliar txartela izan edo ez izan.

Gune urdina esan duzu bestea. Hori da TAO bezala eza-gutzen duguna...

Hori da. Urdinez pintatutako aparkalekuetan denbora gehiagoz utz daiteke kotxea, egun osoan. Hau ere ordainpekoa da, tiketa erosi behar da.

Eta egoliarrenak nola daukazue antolatuta?

Hauek lehen marra gorriekin zeuden bereiztuta, baina hori aldatu egin behar izan dugu eta orain “24 O/H E/R” jartzen du aparkaleku horietan. Horiek gordeta daude egoiliar txartela dutenentzat, auzotarrentzat. Gau eta egun, uda zein negu, aparkaleku horiek beraiek erabiltzeko dira.

Baina auzoka daukazue mugatuta edo txartelarekin herri osokoak erabil daitezke?

Ez, mugak daude. Zarautz sei eremutan daukagu banatuta. Lehen, egoiliar txartelarekin zure eremuko egoiliarren aparkalekuak baino ezin zenituen erabili. Hori orain pixka bat malgutu egin dugu, eta aukera dago beste eremuetako egoiliarren aparkalekuak erabiltzeko, baina ordubeteko mugarekin. Erabaki hau hartu dugu, mandatuak edo gestioak egiteko erraztasuna emateko. Zu laugarren eremuan bizi zara eta ama bigarrenean; eta autoan joan-etorri bat egin behar duzu amari aulki batzuk eramateko. Bada, orain erosoago egingo duzu, amaren auzoko egoiliarren aparkalekuak erabiltzeko aukera daukazulako. Neurri honek arrakasta handia izan du.

Orduan, egoiliar txartelak eskubidea ematen du soilik egoiliarrentzat gordetako aparkalekuak erabiltzeko?

Zure eremuko gune urdinean ere aparka dezakezu ordaindu gabe. Beste eremu batera bazoaz, orduan ordaindu egin behar da. Eta zuri-urdinetan bai, beti ordaindu behar da.

Eta egoiliar txartela nork eskura dezake?

Zarautzen erroldatutakoentzat da txartela. Horrez gain, Udalarekin zorrik ez izatea eskatzen da. Etxe bakoitzeko kotxe kopurua ez dago mugatuta, baina zenbat eta txartel gehiago eskatu orduan eta garestiago.

Eta Zarautzen erroldatu gabe baina bigarren etxebizitza duenak?

Horientzat TAO txartel bereziak daude. Berdin kanpotik lanera datozen langileentzat. Saiatu gara kasu bakoitzari bere erantzuna ematen.

TAO sistema hau guztia urte osoan al dago indarrean?

Ez. Sistema osoa udan bakarrik, ekainaren 15etik irailaren 30era arte. Egoiliarren aparkalekuak beti daude mugatuta, urte osoan 24 orduz. Beste biak, urdina eta zuri-urdina, goizeko 8:00etatik gaueko 20:00ak arte. Gauez libre. Eta neguan eremu urdina libre bihurtzen da, bat eremuan (erdigunean) izan ezik. Zuri-urdina, txandakatze-handikoa, urte osoan dago indarrean.

...



PARTE HARTZEA

IRA 1 - URR 14

PRESTATZEA

URR 15

ONARTZEA

AZA

KONTU EMATEA

ABE

Aurrekontu Irekiak 2017.

Gipuzkoa hobea eta bidezkoagoa eraikitzeko momentua da orain. Gureagoa den Gipuzkoa. Orain zuk erabakitzen duzu Gipuzkoan zein proiektu nahi dituzun. Informa zaitez proiektuei buruz, zure ideien berri eman eta parte hartu, zure ustez gure lurraldearentzat interesgarrienak diren proiektuak lehenetsiz.

Orain Gipuzkoa. Orain zu.



www.gipuzkoa.eus/partaidetza

URRIAREN 14RA ARTE HAR DEZAKEZU PARTE

943 112 111 • partaidetza@gipuzkoa.eus

 @OrainGipuzkoa #partaidetza  OrainGipuzkoa

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

LABARRA TABERNA ZUMAIA est.2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943 860 484



MENDI - ONDO C.B. Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



MARGARI Jruta-denda

Tel.: 943 86 19 20
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel: 943 861 691

Nikol taberna

Amiako plaza 243561516



NOIA S.L. TAILERRAK ETA KARROZERIAK

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Etengabeko garabi zerbitzua

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

836 887 812 (Zumaia)
809 834 438 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com



Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



construcciones y reformas, S.L.
647 040 156
686 911 257
oliden@olidenreformas.com
Oliden arkitek-tura
678 875 652
943 143 093
lar@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA
www.olidenreformas.com

Faxadak
Telatutak
Etxebizirik
(Sukak, lekuak, bainuak)
Industriar mantenimendua
Mota guztietako igelberrak
Etxebizirik inspektio teknikak (ITE)
Zertifikatu energetikak
Faxadak diseinatu eta aholkularitza
Etxebizirik berrak diseinatu
Mota guztietako proiektuak



OSKARBI KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranatz, 1 - Tel. 943 143 112
oskarbi@kirolak.euskarne.net



OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Indutrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza Altzariak

Julio Beobide Ibañeta, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskaltel.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25



943 247 011

www.laprimaverapizzeria.com

TXIMISTA garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (Kodilloak)
Saltxitzak, oilaskoak...
Garagardak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko - Tel. 943 573 905

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289



UKENDU PARABOTIKA BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com



Aplikazioarekin ordaintzeko aukera

Zerbitzua berritzeko lanean ari dira Zarautzen, eta datorren urterako badauzkate ideia berriak. “Udan ikusi dugu zenbait gune gainezka egon direla, kotxe denak hara joaten direlako, eta handik gertu lekua libre aparkatzeko...”, kexatu da Arana. “Ohartu gara informazioa funtsezkoa dela sistema ahalik eta eraginkorren izan dadin; horregatik, datorren urterako pentsatu dugu semaforoen moduko sistema bat erabiltzea, lur-azpiko parkinetan erabiltzen denaren modukoa, jendeak jakin dezan non dagoen lekua eta non ez”.

Eta horrekin batera, mugikorretarako aplikazio bat ere sortuko dute. “Tiketen makinekin jarraituko dugu, baina makinek batzuetan akatsa ematen dute, sistema nahiko konplexua delako. Datorren urtean, aplikazioarekin, askoz erosoagoa izan da, eta aukera berriak emango ditu. Esate baterako, bilera batean zaude eta tiketaren denbora agortu zaizu. Orain aukera bakarra da bileratik altxa eta tiketa berritzea. Aplikazioak aukera emango dizu bileratik altxa gabe denbora gehiago erosteko”.

Udalak kudeatzen du zuzenean edo enpresa bat ardura-tzen da?

Enpresa bat daukagu kontratatuta TAO sistema guztia kudeatzeko.

Zenbat lanpostu sortzen ditu?

Neguan hiru langile egoten dira, eta udan dozena inguru.

Autokarabarekin nola jokatzten duzue? Ba al dute aparkaleku berezirik?

Bai, beraientzat propio prestatutako TAO gune bat daukagu, Aritzabalde aldean. Han dauzkate behar dituzten zerbitzuak, eta eroso daude, zelai baten ondoan...

Ordainpekoa al da?

Bai, ordainpekoa da.

Eta handik kanpo aparkatzen badute?

Handik kanpo, baldin eta aparkalekuan kabitzen badira, eskubidea dute legez, kotxeek bezala. Baina ezin dute akanpatu. Hau da, debekatuta dago trasteak ateratzea, aparkalekuaren espazioa gainditzea. Gu saiatzeko gara hori saihesten eta gonbidatzen ditugu prestatutako gunera joan daitezen. Hasieran kostatu zen, baina aurrean mugimendu handia izan du gune horrek. Egun osorako tarifa berezi bat daukate.

Aipatutako sistemaz gain, Zarautzen bestelako aparkalekuak ere badauzkazue.

Lur-azpiko bi aparkaleku dauzkagu, Munoakoa (272 leku) eta Lege Zaharren enparantzakoa (156 leku). Eta horiez gain, udan, beste aparkaleku batzuk prestatzen ditugu. Adibidez, San Pelaion Kortazarreko zelaian, Itsasmendin... ■

Izarrak **zeruan** daude

Beti esan ohi da argazkiak ateratzeko argia dela garrantzitsua, argirik gabe ez dagoela argazkirik ateratzetik; baina argazki kamerek badute hori erremediatzeko modua.

Hemen aurkezten dizuedan argazkiaren kasuan, gehienez 30 segunduko kapturak egin ditzakegu, hortik aurrera izarrak puntu txiki ordeztu marra bihurtzen batira, mugimenduaren ondorioz. Hau kontuan hartuta, erabiliko dugun materialak garrantzia handia izango du azken emaitzan; edonolako kamera zein objetiborekin zaila izango da emaitza onak lortzea.

Bestalde, nora eta noiz joango garen aurrez planifikatzea ezinbestekoa da. Zer hartu behar dugu kontutan? Argazki honen kasuan, Esne-bidea harapatzeko uda garaia izatea ezinbestekoa da; haren orientazioa ere jakin behar dugu, lehen planoan aterako dugun objektua edo motiboa aukeratzeko; eta, batez ere, objektu horren eta izarren artean argi artifizialik ez egotea komeni da –ia ezinezkoa gaur egun–. Noski, esan beharrik ez dago zeruak garbi egon behar duela, eta ilargirik ez badago askoz hobe.

Ez dut inor engainatu nahi: argazki hauek ez dira horrela ateratzen kameratik, gero asko lantzen dira ordenagailuan edizio programekin nahi duguna nabarmentzeko; gainera, Esne-bidea osorik ateratzen diren argazkietan ia beti argazki askoren batura eta muntaia izaten dira, ezinezkoa baita guztia jasotzea argazki soil batekin, eta errealitatetik asko urruntzen dira; baina egon, egon.... Izarrak eta planetak hor daude, eta argazki kamerek asko laguntzen digute gure begiek ikusi ezin dutena erakutsi ahal izateko.

Erabilitako ekipoa: Nikon D750 eta Samyang 12 f2.8 izan da.

Exif datuak: iso 2000, f.2.8 eta 30s.

Elorrixan, 2016ko irailaren 3an, goizaldeko ordubata aldera aterara.

Imanol Manterola



IRUDIA

URRIA-AZAROA

ERAKUSKETAK

Oxford aretoan

Irailak 30 - urriak 16:

Distira Argazki elkartearen erakusketa kolektiboa: *Itsasoa*.

Urriak 28 - azaroak 13

Usoa Fullaondo: *Chándal*.

Azaroak 18 - abenduak 4

Zumaiko emakumeak lanean.

DEIALDIAK

Urriak 17-19, Otezurin, ikastaroa mugitzeko arazoak dituztenen zantzaileentzat. Doan, gaztelaniaz. Izen-emateak 66305722.

Urriak 21, 19:30-20:30,

Ludoketaren hasiera (LH4-6).

Azaroak 9-13, XV. Klarinete maratoia.

Azaroak 13, Bizilagunak proiektuko bazkariak. Izen-emateak: anitzensareazumaia@gmail.com.

Azaroak 16-22, Xixili Eguna ospatzeko musika egitaraua.

Azaroak 26-27, Ludotekan Jostailu erakusketa 17:00 - 20:00.

Azaroak 29 - abenduak 4, Euskararen Astea.

ZINE FORUM

22:00etan, Aita Marin.

Urriak 20

Corazon gigante. Zuz.: Dagur Kári.

Azaroak 3

Nuestra hermana pequeña (JBA). Zuz.:

Hirokazu Kore-eda

Azaroak 17

High rise. Zuz.: Ben Wheatley.

Abenduak 1

Sunset song. Zuz.: Terence Davies.

URRIA

7-8

Itzurun hondartzan Surf Txapelketa.

8, larunbata

13:00 Kofradian Bollywood dantza saioa Nava Jeevan elkarteak antolatuta.

9, igandea

09:00 Arrantza lehiaketa.

11, asteartea

17:30 Haur liburutegian ipuin kontaketa: Irudi-liburuak kontatzen familietan Pello Añorgaren eskutik (4-8 urte).

14, ostirala

19:30 Forondan Gune elkartearen meditazio saioa.

22:00 Aita Marin antzerkia: E, Petrel! Astrolabium teatroa.

28, ostirala

19:30 Forondan Guneren solasaldia: *Menores con comportamiento de género no normativo: prejuicios y retos* (Inmaculada Mujika).

30, igandea

12:00 + 16:30 Aita Marin antzerkia haurrentzat: *Marikixkur*, Glu Glu.

ANTZERKIA ZUMAIAN 2016



IRAILA 30 ostirala
22:00 Aita Mari
INKLUSIOAZ FORMATU TXIKIAN
Aitea teatroa
94134



URRIA / Octubre
14 ostirala
22:00 Aita Mari
E, PETREL
Julia Villacabán solasana
Astrolabium teatroa
94134



30 igandea
12:00 + 16:30
Aita Mari
MARIKIXKUR
Glu Glu
94134



AZAROA / Noviembre
4 ostirala [castellano]
22:00 Aita Mari
HEY BRO!
Hipster show
Fabiola producciones
94134



13 igandea
12:00 Aita Mari
PERU eta OTSOA
Didau
94134



ABENDUA / Diciembre
2 ostirala
22:00 Aita Mari
PUTINEN GUARDASOLA
Xentimorik gabe
94134



11 igandea
12:00 Aita Mari
GU
Barobil teatroa
94134



DESKONTUAK Aita Mari Bazkideak
Gazte Txartela
SARRERAK TURISMO BULEGOAN



Zalla
• plater konbinatuak
• ogitarkekoak
• oilasko erreak
Urda Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA AUTOESKOLA
E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net
BASOIA 12
20750 ZUMAIA
Tel. 943861018 / Fax. 943016175

Zumaia Hotela
Jateketa
Kaleak
Astelehen, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR S.L.
José Rey Alfaro
Gerente
Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

EDU
ZUMAIAR
OPTICA
RPS 18/16

Txomin Agirre kalea 6,
750 Zumaiar, Gipuzkoa
T. 943.143.057
www.eduoptika.com

Urrian

Zumaia txartela
erabiliz,
opari sorpresa
bat lortuko duzu!



Zumaia Udal



CAJA RURAL

汉语 吴语 Basa Jawa Deutsch ਪੰਜਾਬੀ 日本語
Shona Bhabasa ភាសាខ្មែរ Basa Sunda မြန်မာစာအုပ်
Indonesian/Melayu ភាសាខ្មែរ ភាសាខ្មែរ ភាசាខ្មែរ
Tamil ភាសាខ្មែរ ភាសាខ្មែរ ភាសាខ្មែរ
Français 客家話 Oromoo Vahcuengh Türkmençe Catala Polski
मराठी ភាសាខ្មែរ ភាសាខ្មែរ ភាសាខ្មែរ
Tagalog ភាសាខ្មែរ ភាសាខ្មែរ ភាសាខ្មែរ
English हिन्दी العربية Portuguese Igbo
Tiếng Việt 한국어 தமிழ் اردو Türkçe Italiano 粵語 বাংলা
Azerbaijani Azərbaycanca Azərbaycanca Azərbaycanca



Zumaiako hizkuntzen bideoak grabatzeko lekukoak behar ditugu

Kanpotik etorria zara?

Ingurukoren batek hizkuntza bereziren bat hitz egiten
du?

Deitu edo idatzi

943865025 - luz. 6

euskara@zumaia.eus



Zumaiako Udal

euskara
txanpan



ANITZEN SAREA

AEG
T66771IH1

7 kg

A++

569€



BOSCH
WTW85202EE

8 kg

A++

599€



BALAY
3SB285B

8 kg

A+

442€



**AURREA HARTU
EGURALDI TXARRARI**

LEHORGAILU FESTA!!

ELECTROLUX
EDP2074PDW

7 kg

B

379€



INDESIT
IDCL75BH

7 kg

B

309€



**ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endañetazumaia.com